

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «7/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2015eko abenduaren 23a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (10549)

HITZAURREA

Tributuen aplikazioaz arduratzen diren organoek haiei buruzko araudia etengabe aplikatzeak zenbait kasutan agerian uzten du beharrezkoa dela kasuan-kasuko erregulazioak egokitzea lurralde historikoko erakunde eskudunek arautu ditzaketan tributuetan.

Arrazoi hori dela bide, aldian-aldian, zerga sistemaren aldaketak onartzea sustatzen da, haren barruan hobekuntzak sartzeko. Zeregin hori are beharrezkoagoa da Gipuzkoako zerga sistemako figura fiskal nagusietan garrantzi handiko erreformak egiten direnean; horren adibide, ditugu, esate baterako, pertsona fisikoen errenta zergan, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, eta, bereziki, sozietateen gaineko zergan onartutako arauketa berriak.

Behin onartuta 2014ko abenduaren 16ko 18/2014 eta 17/2014 Foru Arauak, zeinen helburu nagusia izan baitzen 2014an ere onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan eta Sozietateen gaineko Zergarenean zuzenketak egin eta aldaketak sartzeko, orain jarraitu nahi da bi zerga horietan hobekuntzak eta zuzenketak sartzeko, eta, horretarako, proposatzen da foru arau hau onartzea.

Alde horretatik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, honako aldaketa hauek sartzeko dira, besteak beste,

— Langabeziako prestazio bakarraren salbuespenari dagokionez, utzi egiten zaio akzioa edo partaidetza edo jarduera ekonomikoa bost urtez mantentzea exijitzeari, epe hori betetzen ez denean konkurtso prozedura bat dela medio enpresaren edo jarduera ekonomikoa likidatzearen ondorioz. Gainera, salbuespen horren barruan sartuta gelditzen dira desegintzat hartutako kooperatibetako bazkide langileei eta lan bazkideei behin betiko birkokatze onartu zaizkien diru laguntzak. Azken aldaketa hori 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sartzeko da.

— Bestetik, atzerriko lanengatik jasotako ordainsarien salbuespenari dagokionez, kendu egiten da enpresa edo entitate enplegatzailea Espainian egoiliarra izateko beharkizuna.

— Jarduera ekonomikoei dagokionez, argitu egiten da sozietateen gaineko zergan jasotako konpentsazio eta erreserbak ez

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

*NORMA FORAL 7/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias.*

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 7/2015, de 23 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 23 de diciembre de 2015.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (10549)

PREÁMBULO

La aplicación continuada de la normativa tributaria por los órganos encargados de la misma deja al descubierto, en algunos casos, la necesidad realizar ajustes en las distintas regulaciones de los tributos en los que las instituciones competentes del Territorio Histórico tienen competencia para la regulación.

Con tal motivo, periódicamente, se promueve la aprobación de modificaciones en el sistema tributario, al objeto de introducir mejoras en el mismo. Esta labor es aún más necesaria cuando se llevan a cabo reformas de calado en las figuras impositivas más destacadas del sistema tributario guipuzcoano, como son la aprobación de nuevas regulaciones en los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre la Renta de no Residentes y, en especial, en el Impuesto sobre Sociedades.

Una vez aprobadas las Normas Forales 18/2014 y 17/2014, de 16 de diciembre, dedicadas especialmente a correcciones y modificaciones de las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades aprobadas en el mismo año 2014, se pretende profundizar en la labor de mejora y corrección de ambos Impuestos, a través de la aprobación de la presente norma foral.

En este sentido, por lo que se refiere al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, entre las diferentes modificaciones que se incluyen cabe destacar las siguientes:

— En la exención correspondiente a la prestación única por desempleo, se deja de exigir el mantenimiento de cinco años de la acción o participación o de la actividad económica, cuando el citado plazo no se cumpla como consecuencia de la liquidación de la empresa o actividad económica con motivo de un procedimiento concursal. Además, se incorporan a esta exención las ayudas económicas reconocidas a las personas socias trabajadoras y de trabajo de cooperativas declaradas disueltas, para su reubicación definitiva. Esta última modificación se incorpora desde el 1 de enero de 2014.

— Por su parte, en la exención de las percepciones por trabajos realizados en el extranjero, se elimina la exigencia de que la empresa o entidad empleadora sea residente en España.

— En materia de actividades económicas, se aclara que las compensaciones y reservas previstas en el Impuesto sobre

direla aplikatzen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Azalpen hori zergaren araudian sartzen da, segurtasun juridikoaren mesederako.

– Kapital higigarriaren etekinen erregulazioari dagokionez, ezarri egiten da ez dela zenbatuko kapital propioen lagapena ordezkatzeko duten aktiboen dohaintzaren ondorioz sortu daitezkeen etekin garbi negatiboa, inter vivos egintzen kosturik gabeko eskualdaketetatik edo liberalitateetatik eratorritako ondare galeretan aurreikusitakoaren antzera.

– Zehaztu egiten da epemuga iritsitako eta kobratu gabeko kredituetatik eratorritako ondare galeren denboraren araberako egozpena, eta haien araubide iragankorra ezartzen da.

– Espresuki jasotzen da ondorengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango direla zerga oinarri orokorra nahikoa ez izateagatik horretan murriztu ezin izan diren zergadunaren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako edo egotzitako diru kopuruak.

– Era berean, lurralde erkidean hamarretik bost urtera murrizten da aurrezpen sistematikoko banakako planei lehen-dabiziko primaz geroztik bihurtzeko errentaren eraketara bitartean exijitutako gutxieneko epea. Horrek berekin dakar aurreikuspen produktu horiei buruzko bi xedapen gehigarriak aldatzea eta beste xedapen iragankor bat sartzea.

– Ezarri egiten da zordunak konkurtso prozeduretan lortutako errenten salbuespena, betiere zorrak ez badira jarduera ekonomikoak egitearen ondorio.

– Hainbat doikuntza sartzen dira kapital higigarriaren etekinetan eta ondare irabazi eta galeretan, lehenik eta behin Euskal Zuzenbide Zibilararen ekainaren 25eko 5/2015 Legearen onarpenak eragin litzakeen desitxuratzeko saihesteko. Aldaketa hori 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioekin sartzen da.

– Lurralde erkidean bezala, kendu egiten da 2007ko urtarrilaren 1aren aurretik kontratatuta dauden bizitzari edo baliaezintasunari buruzko banakako kontratuetan konpentsazio fiskala egiteko aukera. Aldaketa horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, aldaketa nagusi hauek egiten dira:

– Espresuki arautzen da arauen bat ez betetzeak dakartzan berandutze interesak ez-kengarriak direla, 31. artikuluan beste letra bat sartuta. Nabarmenezkoa da aldaketa hori ez dela berritzailea, baizik eta, segurtasun juridikoaren mesedetan, espresuki jasotzen da gaur arte administrazio honek eta jurisprudentziak erabilitako irizpide bat.

– Era berean, argitu egiten da ondare entitateek ezin dutela inolako kenkaririk aplikatu, lehenetik zentzu horretan interpretatzen baitzen.

– Araubide berezi batean zergapetuta dauden ekonomia intereseko espainiar edo europar elkartei edo aldi baterako enpresa elkartei dagokienez, doitu egiten da mikroenpresen dimentsioak eragindako zailtasuna konpentsatzen duen 100eko 20ko forfaitaren aplikazioa, bikoiztasunak saihesteko.

– Aldaketa batzuk sartzen dira zerga baterakuntzaren araubidean, erregimen osoak koherentzia izan dezan, duela gutxi onartu den urriaren 20ko 2/2015 Foru Dekretu Arauari, Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Zerga aldatzen dituenari, egokitzeak. Egindako aldaketei dagokienez, honela laburbildu daitezke:

Sociedades no son de aplicación en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Esta aclaración se incorpora a la normativa del impuesto en aras de la seguridad jurídica.

– En la regulación de los rendimientos del capital mobiliario, se establece que no se computará el rendimiento neto negativo que se pueda generar como consecuencia de la donación de activos representativos de la cesión a terceros de capitales propios, de forma paralela a lo ya previsto en las pérdidas patrimoniales derivadas de transmisiones lucrativas por actos inter vivos o de liberalidades.

– Se concreta la imputación temporal de pérdidas patrimoniales derivadas de créditos vencidos y no cobrados, y se establece su régimen transitorio.

– Se recoge expresamente la posibilidad de reducir en los cinco ejercicios siguientes las cantidades aportadas o imputadas a sistemas de previsión social del contribuyente que no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por insuficiencia de la misma.

– De igual manera que en territorio común, se reduce de diez a cinco años el plazo mínimo exigido a los planes individuales de ahorro sistemático entre la primera prima y el momento de la constitución de la renta vitalicia. Ello exige incluir modificaciones en las dos disposiciones adicionales que regulan tales productos de previsión así como incluir una nueva disposición transitoria.

– Se establece la exención de las rentas obtenidas por la persona deudora en procedimientos concursales, siempre que las deudas no deriven del ejercicio de actividades económicas.

– Se incluyen una serie de ajustes en los rendimientos del capital mobiliario y en las ganancias y pérdidas patrimoniales, para evitar, en un primer término, distorsiones que podrían surgir como consecuencia de la aprobación de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Esta modificación se incluye con efectos 3 de octubre de 2015.

– De igual manera que en territorio común, se elimina la posibilidad de aplicar la compensación fiscal en contratos individuales de vida o invalidez contratados con anterioridad al 1 de enero de 2007. Esta modificación se incluye con efectos 1 de enero de 2016.

En relación con el Impuesto sobre Sociedades, cabe destacar las siguientes modificaciones:

– Se regula expresamente la no deducibilidad de los intereses de demora derivados del incumplimiento de alguna norma, mediante la inclusión de una nueva letra en el artículo 31. Cabe resaltar que esta modificación no supone una novedad, sino que, en aras de la seguridad jurídica, viene a recoger expresamente un criterio mantenido hasta la fecha tanto por esta Administración como por la jurisprudencia.

– De la misma manera, se aclara que las entidades patrimoniales no pueden aplicar ningún tipo de deducción, cuestión que ya venía siendo interpretada en este sentido.

– En el caso de agrupaciones de interés económico, españolas o europeas, o de uniones temporales de empresas que tributen bajo el régimen especial correspondiente, se ajusta la aplicación del forfait del 20 por 100 de la base imponible positiva, compensatorio de las dificultades inherentes a la dimensión de las microempresas, para evitar duplicidades.

– Se introducen una serie de modificaciones en el régimen de consolidación fiscal para que el régimen en su conjunto tenga coherencia tras las modificaciones introducidas por el Decreto Foral-Norma 2/2015, de 20 de octubre, por el que se modifican el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, y el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados. De entre las medidas introducidas en el régimen de consolidación fiscal, podemos distinguir cinco bloques:

1. Lehenengo aldaketa multzoa barne-itunari buruzkoa da, EZKOaren barnean adostuta baitago, eta beraz, Gipuzkoako araudian ere aplikatu behar da, hiru lurralde historikoen artean tributazioa banatzeko arauak ezartzen dituelako.

2. Bigarren neurri blokean –zalantzarik gabe handiena eta teknikoena–, taldeen terminologia berriari buruzko artikulua egokitzen dira, eta aldi berean, zerga baterakuntzaren erregulazioa barne-ituneko arau berrietara ere egokitzen da.

3. Hirugarren neurri blokearen helburua da zerga baterakuntzaren araubidea talde bateratuen errealitatera egokitzea. Hala, bloke horretako neurrietako bat da sozietate bat talde bateratu batean sartu nahi bada, erabakia Administrazio Kontseiluak hartu behar duela, eta ez Akziodunen Batzordeak, entitateentzat askoz ere errazagoa baita erabaki hori Administrazio Kontseiluaren bidez izapidetzea. Beste aldaketa bat da zehapen erregimena errealitatera egokitzen dela, eta zehapen handiagoak ezartzen direla beharrezkoa erabakiak onartzen ez badira, aurreko zehapen erregimena ez baitzen behar bezain eragozlea. Aldi berean, zehapen berrien zenbatekoak gehiago egokitzen dira zenbait entitatek osatutako talde bateratuen egituretara.

4. Laugarren aldaketa blokean, berriaz araututa ez zeuden arauak ezartzen dira, nahitaez sartu beharrekoak, legegileak nahi ez duen arau hutsune bat betetzeko. Berez, 2014ko kanpainan jada, araua orain proposatzen den moduan interpretatu zen. Zehazki, kontabilitate emaitzatik eratorritako zuzenketak aplikatzeko arauak dira, entitate bat talde batean sartu edo hortik ateratzen bada aplikatu beharrekoak, alegia.

5. Azkenik, badago gai bat, proiektuan araututa zegoen arren, sistematika arrazoiengatik zegoen apartatutik kendu eta berriro sartu dena zerga baterakuntzaren araubideari buruzko gainerako aldaketekin batera. Mikroenpresen eta talde bateratuen kasuan %20ko forfaitaren kalkulua ari gara.

– Berrinbertsioko salbuespena aplikatzeko, orokortu egiten da berrinbertsioa elkarri lotu gabeko pertsona edo entitateei erositako ondare elementuetan gauzatzeko beharkizuna. Lehenago beharkizun hori bakarrik sozietate taldeen esparruan ezarrita zegoen.

– Kontentsazioaren figuraren kalkularen sinplifikaziorako zuzenketa tekniko bat sartzten da, kapitalizazio enpresariala sustatzeko. Aldaketaren muina da aurreko urtekoa erreferentziatzat hartzea eta ez, ordea, aurreko urteetako batez bestekoa.

Aurrekoaz aparte, oinordetzen gaineko zergan aldatu egiten da zerga oinarrian aplikatzen diren murriztapenen erregulazioa, banakako enpresak, negozio profesionalak edo entitateetako partaidetzak mortis causa edo inter vivos eskuratzen direnean, haren edukia beste lurralde historikoekin harmonizatzeke.

Gainera, zergaren araudia Euskal Zuzenbide Zibilararen ekainaren 25eko 5/2015 Legearen onarpenera egokitzeke, oinordetza titulutzat hartzen dira oinordetza kontratu edo itunak, kontuan hartu gabe eraginkortasuna noiz hartzen duten. Dena den, orainaldiko eraginkortasuna duten oinordetza itunei beharkizun gehigarriak exijitzen zaizkie, oinordetza titulutzat hartuak izateko. Aldaketa hori 2015eko urriaren 3tik aurrerako ondorioekin sartzten da.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan jasotako zerga hobarien esparruan, eguneratu egiten da sozietateen gaineko zergan aurreikusita zegoen etxebizitzaren errentamenduko entitateen araubide berezi indargabekura egiten zen bidalketa; haren ordez, egun indarrean dagoen ondasun higiezinen errentamenduko jarduerak kualifikatua duten entitateen araubidera bidaltzen da.

1. La primera modificación aborda el intraconcierto, aspecto acordado en el seno del OCTE y que es de obligatoria incorporación a la normativa guipuzcoana, ya que supone las reglas de distribución de la tributación entre los tres Territorios Históricos.

2. El segundo bloque de medidas, sin duda el más grande, es de carácter técnico, donde se adecuan los artículos correspondientes a la nueva terminología de los grupos, y donde se adecua igualmente la regulación del régimen de consolidación fiscal a las nuevas reglas del intraconcierto.

3. El tercer bloque de medidas son medidas que suponen una adecuación del régimen de consolidación fiscal a la realidad de los grupos consolidados. Así, una de las medidas de este bloque consiste en que el acuerdo de la sociedad para formar parte de un grupo consolidado lo tome el Consejo de Administración en lugar de la Junta de Accionistas, lo cual simplifica la tramitación del mismo para las entidades. Otra de las modificaciones consiste en la adecuación del régimen sancionador a la realidad, exigiendo mayores sanciones en caso de no adoptar los acuerdos necesarios, ya que el régimen sancionador anterior no resultaba suficientemente disuasorio y, a su vez, los nuevos importes se adecuan más a una estructura de grupo consolidado, formado por varias entidades.

4. El cuarto bloque se refiere a unas reglas que no estaban expresamente reguladas pero que se ha considerado necesario introducirlas, debido a que suponen un vacío normativo no deseado por el legislador. De hecho, ya en la campaña de 2014 se ha interpretado la norma en el sentido que ahora se propone. En particular, se trata de las reglas de aplicación de las correcciones derivadas del resultado contable, en supuestos en los que una entidad pasa a formar parte de un grupo o bien sale del mismo.

5. Por último, se introduce un aspecto que estaba regulado en el proyecto pero que, por sistemática, se ha eliminado del apartado correspondiente y se ha vuelto a introducir junto con el resto de modificaciones relativas al régimen de consolidación. Se trata del cálculo del forfait del 20% en el supuesto de microempresas y grupos consolidados.

– Para la aplicación de la exención por reinversión, se generaliza la exigencia de materializar la reinversión en elementos patrimoniales adquiridos a personas o entidades no vinculadas, requisito que anteriormente se establecía únicamente en el ámbito de los grupos de sociedades.

– Se introduce una corrección técnica y de simplificación del cálculo de la figura de la Compensación para fomentar la capitalización empresarial. La modificación consiste en tomar como referencia la del año anterior, y no la media de los años anteriores.

Al margen de lo anterior, en el Impuesto sobre Sucesiones se modifica la regulación de las reducciones en la base imponible con ocasión de las adquisiciones «mortis causa» e «inter vivos» de empresas individuales, negocios profesionales o de participaciones en entidades, al objeto de armonizar su contenido con los otros Territorios Históricos.

Además, a los efectos de acomodar la normativa del impuesto a la aprobación de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, se identifican como títulos sucesorios los contratos o pactos sucesorios, independientemente del momento en que opere su eficacia. No obstante, a los pactos sucesorios con eficacia de presente se les exigen requisitos adicionales para que tengan la consideración de títulos sucesorios. Esta modificación se incluye con efectos 3 de octubre de 2015.

En el ámbito de los beneficios fiscales previstos en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, se actualiza la remisión al derogado régimen especial de entidades dedicadas al arrendamiento de viviendas que se prevenía en el Impuesto sobre Sociedades, sustituyéndolo por el actualmente vigente régimen de entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles.

Horrez gain, aldatu egiten dira udal zerga hauetan jasotako zerga figura batzuk: ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Zerga horietako lehenean, zabaldu egiten da katastro informazio babestua eragindako subjektuaren baimenik gabe eskeratu dezaketen sektore publikoko entitateen multzoa.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergan, aldaketa nagusi hauek egiten dira:

– Zabaldu egiten da zergaren salbuespenaren eremu subjektiboa, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen barnean hartuta.

– Desagertu egiten da jarduera ekonomikoa hasteagatik egokitzen den salbuespena eskatu beharra.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan, bestetik, udalerriei aukera ematen zaie familia ugarietako kideen titularitasuneko ibilgailuen hobari bat arautu dezaten.

Kooperatiben zerga araubideari dagokionez, konpondu egiten da sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboa kalkulatzeko sortutako arazoa, alegia, zerga araubide horri buruzko foru arauan bereziki babestutako kooperatibek aplikatzeko jasota dagoen kuota likidoaren 100eko 50eko kenkaria eta Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan jasotako kenkari mugadun eta mugagabeak aldi berean aplikatzen sortutako arazoa. Hori horrela, ordenatu egiten dira haien aplikazioa eta kalkulua.

Zergen Foru Arau Okorrean, aldatu egiten dira herrialde edo jurisdikzio jakin bat paradisuraino fiskaltzat jotzeko kontuan hartzen diren irizpideak. Hori horrela, bertan aintzat hartzen dira informazio truke eraginkorra eta Gardentasunerako eta Informazio Trukerako Nazioarteko Foroaren ebaluazioen emaitzak. Paradisuaren zerrenda erregelamenduz arautuko da, eta espresuki aurreikusten da hura eguneratzea.

Xedapen iragankorrean jasotakoaren arabera, ez dira geldituko pertsonak birkokatzeagatik ematen diren diru laguntzen salbuespenetik kanpo 2014aren aurretik laguntza aitortu zaien kooperatibetako bazkide langileak, aintzat hartuta ondoren desegindako entitateek eta horiek hartzen dituzten talde kooperatiboek neurriak hartu ahal izan dituztela, hala nola krisi egoerari bazkide langileak birkokatzea.

Azkenik, xedapen indargabetzaile bakarrak xedapen generiko bat jasotzen du. Amaierako xedapenak ezartzen du foru araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko dela indarrean, nahiz eta horrek ez duen eragotziko horren xedapenetan espresuki aipatutako ondorioak izatea.

**1. artikulua.** *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzea.*

**Lehen.** Xedapen hauek aldatzen dira, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan:

Bat. Honela idatzita gelditzen dira 9. artikulua 7. eta 17. zenbakiak:

«7. Aurreko zenbakian adierazitako kalte mota berdinentzat asegaru kontratuen bidez jasotzen diren zenbatekoak, 150.000 euroraino. Lesioak prestazioaren jasotzaileak desgaitzen badu edozein lanbide edo jardueratan aritzeko, kopuru hori 200.000 eurokoa izango da, eta gainera, jasotzaileak beste pertsona baten laguntza behar badu eguneroko eginbehar oinarritutako koenartarako, orduan 300.000 eurokoa izango da muga».

Además de lo anterior, se modifican diversas figuras tributarias encuadradas en los tributos locales: el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, el Impuesto sobre Actividades Económicas y el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

En el primero de los tributos mencionados, se amplía el espectro de entidades del sector público susceptibles de acceder a la información catastral protegida sin necesidad de consentimiento del afectado.

En el Impuesto sobre Actividades Económicas, son varias las modificaciones, entre las que cabe citar:

– La ampliación del ámbito subjetivo de la exención del tributo, incluyendo a Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, a Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca y a la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País Vasco-Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte.

– La supresión del carácter rogado de la exención por inicio del ejercicio de la actividad.

En el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, por su parte, se incluye la posibilidad de que los Municipios regulen una bonificación para vehículos cuya titularidad corresponda miembros de familias numerosas.

En materia del Régimen Fiscal de Cooperativas, se resuelve la problemática generada en el cálculo de la cuota efectiva del Impuesto sobre Sociedades por la concurrencia de la deducción del 50 por 100 de la cuota líquida aplicable por las cooperativas especialmente protegidas prevista en la norma foral que regula tal régimen fiscal, y de las deducciones con y sin límite previstas en la norma foral del Impuesto sobre Sociedades, de manera que se ordena su aplicación y cálculo.

En la Norma Foral General Tributaria, se modifican los criterios a tener en cuenta para considerar que un determinado país o jurisdicción tenga la consideración de paraíso fiscal, incluyendo tanto la existencia de un intercambio de información efectivo como los resultados de las evaluaciones realizadas por el Foro Global de Transparencia e Intercambio de Información. La lista de paraísos se regulará reglamentariamente y se prevé de manera expresa la posibilidad de su actualización.

La disposición transitoria prevé no excluir de la aplicación de la exención de las ayudas económicas por reubicación de personas socias trabajadoras de cooperativas a aquellas a las que se haya reconocido la ayuda antes de 2014, considerando que las entidades posteriormente disueltas y los grupos cooperativos en las que se integren, pudieran haber adoptado medidas como la reubicación de sus personas socias trabajadoras para hacer frente a la situación de crisis.

Para terminar, la disposición derogatoria única recoge una derogación genérica, y la disposición final única establece la entrada en vigor de la norma foral el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de los efectos que se establecen de forma expresa en su articulado.

**Artículo 1.** *Modificación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

**Primero.** Con efectos a partir del 1 de enero de 2015 se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. Los números 7 y 17 del artículo 9, quedan redactados en los siguientes términos:

«7. Las percepciones derivadas de contratos de seguro por idéntico tipo de daños a los señalados en el número anterior hasta 150.000 euros. Esta cuantía se elevará a 200.000 euros si la lesión inhabilitara a la perceptora para la realización de cualquier ocupación o actividad y a 300.000 euros si, adicionalmente, la perceptora necesitara de la asistencia de otra persona para los actos más esenciales de la vida diaria».

«17. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lan etekinak, beharkizun hauek betetzen badira:

1. Lan horiek egitea Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian kokatuta dagoen establezimendu iraunkor batentzat, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, gertatzen bada lanak hartu behar dituen entitateak lotura bat duela langilea enplegatu duen entitatearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 44. artikulua 1. apartatua aurreikusitako beharkizunak bete beharko dira.

2. Lanak egiten diren lurraldean zerga honen antzeko edo pareko zerga bat aplikatzea, eta herrialde edo lurralde hori paradisu fiskaltzat kalifikatuta ez egotea. Beharkizun hori betetzen dela ulertuko da lanak egiten diren herrialde edo lurraldean nazioarteko zergapetze bikoitza sailhesteko hitzarmena sinatua duenean Espainiarekin eta hitzarmen horretan informazioa elkarri trukatzeko klausula jasotzen denean.

Atzerrian emandako egunetan sortu diren ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, eta urtean 60.100 eurokoa izango da gehienez.

Atzerrian destinatuturik dauden zergadunentzat, salbuespen hori bateraezina izango da errenta zergaren erregelamenduetan tributaziotik kanpo geratzen diren soberakineterako aurreikusitako duen araubidearekin, zenbatekoa edozein dela ere. Zergadunak aukeran izango du salbuespen honen ordezkari soberakineterako araubidea aplikatzea.

Langilearen atzerrira aldatzeak bera enplegatu duen enpresak edo entitateak nazioz gaindikoa zerbitzu prestazio bat egiteagatik gertatu behar du.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko mugaldekoko langileei.

Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 115. artikuluko 3. apartatua aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergadunak, aplikazioaren ekitaldiko autoliquidazioa aurkeztean, adierazi behar du zer hautatzen duen: salbuespen hau aplikatzea edo soberakineterako araubidea aplikatzea.

Bi. Aldatu egiten da 27. artikuluko 4. erregela bereziaren b) letra, eta artikuluko berari erregela berezi bat erantsen zaio, 10. erregela. Hona hemen horien edukia:

«b) Opariak eta bestelako esku-erakutsiak, baldin eta hartzaile eta zergaldi bakoitzeko zenbatekoa ez bada 300 euro baino gehiago, eta hartzailearen nortasuna agiriren batean jasota geratzen bada. Aipaturiko gastuak goian zehazturiko zenbatekotik gorakoak badira, bakarrik kopuru horretaraino izango dira kengarriak».

«10.<sup>a</sup> Ez dira aplikatuko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren IV. tituluko V. kapituluaren ezarritakoaren arabera emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak».

Hiru. Honela idatzita gelditzen da 35. artikulua 4. apartatua:

«4. Artikulu honetan aipatutako besteren kapitalak erakrari eta erabiltzeko aktiboei dagokienez, kapital higigarriaren etekinik ez dagoela ulertuko da zergadunaren heriotza dela-eta aktiboak kosturik gabe eskualdatzen direnean, eta ez da zenbatuko aktiboak inter vivos egintzen bidez kosturik gabe eskualdatzearen ondorioz eratorritako kapital higigarriaren etekin negatiboa».

Lau. Honela idatzita gelditzen da 41.2 artikulua 4. letra:

«e) Ezkontideen ondasun banaketako araubide ekonomiko edo izatezko bikoteak adostutako ondare araubidea iraungitzen denean, baldin eta legeak edo epaileek aginduta konpentsazioak egiten badira eta horien zioak ezkontideen edo iza-

«17. Los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

1.º Que dichos trabajos se realicen para una empresa o entidad no residente en España o un establecimiento permanentemente radicado en el extranjero, en las condiciones que reglamentariamente se establezcan. En particular, cuando la entidad destinataria de los trabajos esté vinculada con la entidad empleadora de la persona trabajadora o con aquella en la que preste sus servicios, deberán cumplirse los requisitos previstos en el apartado 1 del artículo 44 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

2.º Que en el territorio en que se realicen los trabajos se aplique un impuesto de naturaleza idéntica o análoga a la de este impuesto y no se trate de un país o territorio considerado como paraíso fiscal. Se considerará cumplido este requisito cuando el país o territorio en el que se realicen los trabajos tenga suscrito con España un convenio para evitar la doble imposición internacional que contenga cláusula de intercambio de información.

La exención se aplicará a las retribuciones devengadas durante los días de estancia en el extranjero, con el límite máximo de 60.100 euros anuales.

La presente exención será incompatible, para los contribuyentes destinados en el extranjero, con el régimen de exenciones excluidas de tributación previsto en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, cualquiera que sea su importe. El contribuyente podrá optar por la aplicación del régimen de exenciones en sustitución de esta exención.

El desplazamiento al extranjero de la persona trabajadora se debe efectuar en el ámbito de una prestación de servicios transnacional por parte de la empresa o entidad empleadora de la persona trabajadora desplazada.

Esta exención no se aplicará a los trabajadores fronterizos.

A efectos de lo previsto en el apartado 3 del artículo 115 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa el contribuyente deberá manifestar la opción por la aplicación de esta exención o del régimen de exenciones al presentar la autoliquidación del ejercicio en que se desee aplicar».

Dos. Se modifica la letra b) de la regla especial 4.<sup>a</sup> del artículo 27 y se añade una regla especial 10.<sup>a</sup> al mismo artículo, con el siguiente contenido:

«b) Los regalos y demás obsequios siempre que el importe por persona destinataria y período impositivo no exceda de 300 euros y quede constancia documental de la identidad de la persona perceptora. En el supuesto de que los citados gastos excedan el importe señalado serán deducibles hasta esa cuantía».

«10.<sup>a</sup> No serán de aplicación las correcciones en materia de aplicación del resultado previstas en el capítulo V del título IV de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades».

Tres. El apartado 4 del artículo 35 queda redactado en los siguientes términos:

«4. En relación con los activos representativos de la captación y utilización de capitales ajenos a que se refiere este artículo, se estimará que no existe rendimiento del capital mobiliario en las transmisiones lucrativas de los mismos, por causa de muerte del contribuyente, ni se computará el rendimiento del capital mobiliario negativo derivado de la transmisión lucrativa de aquellos por actos «inter vivos»».

Cuatro. La letra e) del artículo 41.2 queda redactado en los siguientes términos:

«e) En la extinción del régimen económico matrimonial de separación de bienes, o del régimen económico patrimonial acordado por la pareja de hecho, cuando por imposición legal o resolución judicial se produzcan compensaciones, dinerarias o

tezko bikotekideen arteko pentsio konpentsagarriarekin zerikusirik ez badu.

Apartatu honetako e) letra honetan aipatutako konpentsazioek ez dute emango ordaintzailearen zerga oinarria murrizteko eskubiderik, eta ez dira errenta izango jasotzailearentzat.

Letra honetan aipatutako kasuak inola ere ezingo du ekarri esleitutako ondasun edo eskubideen balioak eguneratzea».

Bost. Honela idatzita gelditzen da 47. artikulua 2. apartatua:

«2. Aurreko apartatuko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, eta letra horietan adierazitako baloreen kostu gabeko eskualdaketen ondorioetarako, balore homogeneoak daudenean, zergadunak eskualdatutakoak lehenik eskuratutakoak direla ulertuko da.

Erabat liberatutako akzioak direnean, haien sorburu diren akzioei dagokien antzintasuna hartuko da kontuan».

Sei. Honela idatzita gelditzen da 49. artikulua 3. apartatua:

«3. Honako kasu honetan ere aurreko apartatuetan ezarritakoa aplikatuko zaie familiaren etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare irabaziei: aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza izan bazen, baina senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desagiteko prozedura batean epailearen erabakiaren ondorioz utzi bazion hor bizitzeari zergadunak.

Erregelamenduz ezarri ahal izango dira apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko beharkizun osagarriak».

Zazpi. Beste letra bat gehitzen zaio, j) letra, 57.2. artikuluari. Hona hemen haren edukia:

«j) Epemugara iritsi diren eta kobratu ez diren kredituek eragindako ondare galerak zirkunstantzia hauetako bat gertatzen den zergaldiari egotzi ahal izango zaizkio:

1. Eraginkortasuna hartzea Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 71. bis artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian aipatutako finantzaketa-akordio judizialki homologagarrietako batean edo lege beraren X. tituluan jasotako akordio estrajudizial batean jasotako kita batek.

2. Zorduna konkurtso egoeran egonik, eraginkortasuna hartzea Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 133. artikuluan jasotakoaren arabera kredituaren adinako kita bat erabakitzen duen hitzarmenak; kasu horretan, galera kitaren zenbatekoaren arabera konputatuko da.

Beste kasu batean, konkurtso prozedura kreditua ordaindu gabe amaitzea, salbu erabakitzen bada konkurtsoa amaitzea Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 176.1 artikulua 1., 4. eta 5. zenbakietan jasotako arrazoiengatik.

3. Urtebeteko epea betetzea, betiere konkurtsokoa ez den eta kreditua exekutatzea helburu duen prozedura judiziala hasi denetik aurrera, kreditua ordaindu gabe.

Kreditua j) letra honetan aipatutako ondare galera konputatu ondoren kobratu denean, ondare irabazi bat konputatuko da, betiere kobrantza gertatzen den zergaldian kobratutako zenbatekoaren adina».

Zortzi. Honela idatzita gelditzen da 60.2.a) artikulua hirugarren paragrafoa:

«Ordaintzailearen etxebizitza erabiltzen den kasuetan, hari dakarkion kostua hartuko da, zergak eta gastuak barne. Halere, balorazioa ezin izango da txikiagoa izan letra honen aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuz gero egokituko zena baino».

mediante la adjudicación de bienes, por causa distinta de la pensión compensatoria entre cónyuges o miembros de la pareja de hecho.

Las compensaciones a que se refiere esta letra e) no darán derecho a reducir la base imponible de la persona pagadora ni constituirá renta para la persona perceptora.

El supuesto al que se refiere esta letra no podrá dar lugar, en ningún caso, a las actualizaciones de los valores de los bienes o derechos adjudicados».

Cinco. El apartado 2 del artículo 47 queda redactado en los siguientes términos:

«2. A efectos de lo dispuesto en las letras a), b), c) y d) del apartado anterior, y de aquellas transmisiones lucrativas de los mismos valores señalados en las citadas letras, cuando existan valores homogéneos, se considerará que los transmitidos por el contribuyente son aquellos que adquirió en primer lugar.

Cuando se trate de acciones totalmente liberadas, se considerará como antigüedad de las mismas la que corresponda a las acciones de las cuales procedan».

Seis. El apartado 3 del artículo 49 queda redactado en los siguientes términos:

«3. Lo dispuesto en los apartados anteriores también será de aplicación para las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión de la vivienda familiar que hubiera tenido para el contribuyente la consideración de vivienda habitual en un momento anterior, cuando dicho contribuyente hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

Reglamentariamente podrán establecerse requisitos adicionales para la aplicación de lo dispuesto en este apartado».

Siete. Se añade una letra j) al artículo 57.2 con el siguiente contenido:

«j) Las pérdidas patrimoniales derivadas de créditos vencidos y no cobrados podrán imputarse al período impositivo en que concorra alguna de las siguientes circunstancias:

1.º Que adquiera eficacia una quita establecida en un acuerdo de refinanciación judicialmente homologable a los que se refiere el artículo 71 bis y la disposición adicional cuarta de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, o en un acuerdo extrajudicial de pagos a los cuales se refiere el Título X de la misma Ley.

2.º Que, encontrándose la persona deudora en situación de concurso, adquiera eficacia el convenio en el que se acuerde una quita en el importe del crédito conforme a lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, en cuyo caso la pérdida se computará por la cuantía de la quita.

En otro caso, que concluya el procedimiento concursal sin que se hubiera satisfecho el crédito salvo cuando se acuerde la conclusión del concurso por las causas a las que se refieren los números 1.º, 4.º y 5.º del artículo 176.1 de la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal.

3.º Que se cumpla el plazo de un año desde el inicio del procedimiento judicial distinto de los de concurso que tenga por objeto la ejecución del crédito sin que este haya sido satisfecho.

Cuando el crédito fuera cobrado con posterioridad al cómputo de la pérdida patrimonial a que se refiere esta letra j), se imputará una ganancia patrimonial por el importe cobrado en el período impositivo en que se produzca dicho cobro».

Ocho. El tercer párrafo del artículo 60.2.a) queda redactado en los siguientes términos:

«En el caso de utilización de una vivienda que no sea propiedad de la persona pagadora, por el coste que suponga para ésta, tributos y gastos incluidos, sin que la valoración resultante pueda ser inferior a la que hubiera correspondido de haber aplicado lo dispuesto en los párrafos anteriores de esta letra».

Bederatzi. Honela idatzita gelditzen da 71. artikulua 3. apartatua:

«3. Aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak aukera izango dute ekarpenak hurrengo bost urteetan murrizteko, aipatutako muga errespetatuz beti, baldin eta horien kopuruak zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan badira artikuluko 1. apartatuko a) letran ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzeagatik eta, betiere, murrizpenaren ekitaldian ez badaude erre-tiro egoeran.

Modu berean jokatu ahal izango da bai kontribuzio enpresarialeak euren muga gainditzen dutenean, bai artikuluko 1. apartatuko c) letran aipatzen den baterako muga aplikatu behar den kasuetan.

Ekarpenak edo kontribuzioak ezin izan badira zerga oinarri orokorrean murriztu hura nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldian murriztu ahal izango dira, haiek gainditu gabe, baldin eta murrizten diren ekitaldian bazkidea, partaidea, mutualista edo aseguratuaren erretiro egoeran ez badago.

Era berean, aurreko artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera egindako ekarpenak ezin izan badira zerga oinarri orokorrean murriztu apartatu horretan ezarritako muga gainditzeagatik, hurrengo bost ekitaldian murriztu ahal izango dira, baldin eta horiek murrizten diren ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuaren ez badago. Ekarpenak edo kontribuzioak ezin izan badira zerga oinarri orokorrean murriztu hura nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldian murriztu ahal izango dira, haiek gainditu gabe, baldin eta murrizten diren ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuaren ez badago.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei».

Hamar. Honela idatzita gelditzen da 82. artikulua 1. apartatuan jasotako taula, euskarazko bertsioan:

«Desgaitasun edo mendetasun maila eta hirugarren pertsonengandik jaso beharreko laguntza	Kenkaria (euroak)
%33ko desgaitasuna edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa	867
%65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendetasun txikia (I. gradua)	1.224
%75eko desgaitasuna edo handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 15 eta 39 puntu bitartean lortuta. Mendetasun ertaina (II. gradua)	1.428
%75eko desgaitasuna edo handiagoa, hirugarren pertsonen laguntzagatik 40 puntu edo gehiago lortuta. Mendetasun handia (III. gradua)	2.040»

Hamaika. Honela idatzita gelditzen da 106.1 artikulua c) letra:

«c) Egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorraz zein iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoak, juridikoak eta bestelako entitateak, beraiek ordaintzen dituzten lan etekinei dagokienez, bai eta atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 24. artikulua 2. apartatuan aipatzen dituen errentak lortzeko gastu kengarriak badira».

Nueve. El apartado 3 del artículo 71 queda redactado en los siguientes términos:

«3. Las personas socias, partícipes, mutualistas o aseguradas que hubieran efectuado aportaciones a los sistemas de previsión social a que se refiere el apartado 1 del artículo anterior, podrán reducir en los cinco ejercicios siguientes las cantidades aportadas que no hubieran podido ser objeto de reducción en la base imponible general por exceder del límite máximo previsto en la letra a) del apartado 1 de este artículo, respetando el citado límite y siempre que en el ejercicio en que se reduzcan no se encuentren en situación de jubilación.

Del mismo modo se podrá proceder tanto en los supuestos de exceso de las contribuciones empresariales respecto de su propio límite, como en el caso de que resulte de aplicación el límite conjunto a que se refiere la letra c) del apartado 1 de este artículo.

Cuando las aportaciones o las contribuciones no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por insuficiencia de la misma, podrán, asimismo, ser objeto de reducción en los cinco ejercicios siguientes, siempre que en el ejercicio en que se reduzcan la persona socia, partícipe, mutualista o asegurada no se encuentre en situación de jubilación.

Asimismo, las aportaciones realizadas en virtud de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo anterior que no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por exceder del límite previsto en dicho apartado, podrán reducirse en los cinco ejercicios siguientes, siempre que en el ejercicio en que se reduzcan el cónyuge o pareja de hecho que ostente la condición de socio o socia, partícipe, mutualista o asegurado o asegurada no se encuentre en situación de jubilación. Cuando las aportaciones o las contribuciones no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por insuficiencia de la misma, podrán asimismo ser objeto de reducción en los cinco ejercicios siguientes, sin exceder de las mismas, siempre que en el ejercicio en que se reduzcan el cónyuge o pareja de hecho que ostente la condición de socio o socia, partícipe, mutualista o asegurado o asegurada no se encuentre en situación de jubilación.

Estas reglas no resultarán de aplicación a las aportaciones y contribuciones que excedan de los límites máximos previstos en su normativa financiera».

Diez. El cuadro recogido en el apartado 1 del artículo 82, en su redacción en Euskara, queda redactado en los siguientes términos:

Once. La letra c) del artículo 106.1 queda redactada en los siguientes términos:

